# BERTAKO ONDARE BERRESKURAPENA
## RECUPERACIÓN DEL PATRIMONIO LOCAL

Arraia - Maeztuko Udala
Ayuntamiento de Arraia - Maeztu

# ERROETA - KALEZULOEN OTSOTEGIA
## LOBERA DE LOS CALLEJONES - ONRAITA

**Kalezuloen otsotegia**

**Naturala da. Ondoko neurriak dituen haitzen arteko bidea aprobetxatzen du; bi edo hiru metroko zabalera, 50 m-ko luzera, eta beste bi edo hiru metroko ertz erabat bertikalak.**

**Haizpitarte honen amaieran erraz itxi daitekeen hertsigunea dago. Behin ehiza pasabidean sartuta, ezinezkoa du ihes egitea. Hortaz, otsoa bizirik ala hilda harrapa zezaketen ehiztariek. Ez da etxolen aztarnarik geratzen, horrek pentsarazten digu adarrez egindakoak izan zirela. Zenbait haizpitarte txikitan, izan ere bat baino gehiago dago, nabaria da zurez edo harriz itxita egon zirela piztiak otsotegira bideratzeko. Ingurune hau Erroetan dago, herria San Juan mendatearekin lotzen duen bidetik hurbil, zehazki.**

**Jatorria: Hasieran, giza-taldeek modu antolatuan ehizatzeko erabiltzen zituzten beharrezko baliabideak ziren. Izan ere, talde horiek animalia basatiak harrapatu behar izaten zituzten bizirauteko. Animalia basatiak hezten hasi zituztenean, basapiztiak (abereak erasotzen dituzten animalia basatiak) harrapatzeko edo hiltzeko tranpa bihurtu zituzten.**

**Motak: Bi dira nagusiak: batetik, naturalak; eta, bestetik, harrizko edo zurezko hormak jartzeko baldintzak eskaintzen zituzten lekuetan prestatutakoak. Naturaletan, artzainek edo herritarrek baliatzen zituzten hala ehiza troketatik amiltzera behartzen zuten inguruak, nola ihes egitea ezinezkoa zuten geologia-sokoguneak. Behin zulora erorita, han akabatzen zituzten.**

**Erabilera: Otsoak bazirela antzematen zutenean, inguruko herrietako jendea (etxe bakoitzeko bana) mendi-batzarrak ezarritako tokian biltzen zen, kanpai-hotsak deituta. Behin bilduta, zonaldean uxaldia antolatzen zuten. Animalia antzemanez gero, hura uxatzen zuten otsotegian sartarazteko. Ehiztari batzuk harriz edo adarrez egindako babeslekuetan (etxolak) gordeta zelatan egoten ziren, animaliaren zain.**

**Sariak: Otso baten harrapaketa edo hilketa gertaera handia zen. Jaia antolatzen zen eta balentriaren egileek sari bat irabazten zuten. Izkiko mendi-ordenantzetan jasota dago: "Agintzen dugu otsokumeak hartzen edo otso bat zein hartz bat hiltzen dutenei umealdi bakoitzagatik zortzi dukat emateko".**

**ETRS89 HUS030**
**548158**
**4738777**

**Lobera de los Callejones**

Es natural. Aprovecha un pasaje entre rocas de 50 metros de largo, de escasa anchura (entre dos o tres metros) y bordes totalmente verticales de dos a tres metros de altos. Al final de este desfiladero hay un estrechamiento fácil de taponar. Una vez que la pieza ha entrado en el pasadizo es imposible que escape, por lo que podían cazar al lobo vivo o muerto. No quedan restos de cabañuelas, lo que indica que las que había podían ser de ramas, pero en algunos de los minidesfiladeros, pues hay más de uno, se nota que estuvieron cerrados con maderas y piedras para que las alimañas fueran hacía la lobera. Este paraje se encuentra en Onraita, no lejos del camino que une este pueblo con el puerto de San Juan.

**Origen**: En su inicio eran el instrumento fundamental para practicar un sistema organizado de caza por colectivos humanos cuya subsistencia dependía de la captura de animales salvajes. Cuando estas colectividades lograron domesticar a algunos de ellos se convirtieron en trampas para facilitar la eliminación o captura de las alimañas (los animales silvestres que atacan a los domesticados).

**Clases**: Son básicamente dos: las naturales y las habilitadas en lugares con condiciones para poner muros o empalizadas. En las naturales, los/las pastores/as o lugareños/as utilizaban parajes que obligaban a la pieza a dirigirse hacia barrancos en los que se precipitaban al vacío, o hacia depresiones geológicas de las que no podían escapar y donde las mataban cuando caían en fosos de los no podían salir.

**Uso**: Cuando se detectaba la presencia de un lobo, habitantes de los pueblos de la zona (uno/a por casa) se reunían a toque de campana en un lugar determinado por la Junta de Montes. Una vez allí se desplegaban para batir el terreno. Si detectaban al animal lo espantaban para que se introdujera en la lobera. Algunos/as pastores/as se ocultaban en refugios de piedra o ramas (cabañuelas) para vigilar, escondidos, el paso del animal.

**Premios**: La captura o la muerte de un lobo era un acontecimiento. Se celebraba con una fiesta y protagonistas de la hazaña tenían derecho a un premio. En las Ordenanzas de los montes de Izki se dice: " Ordenamos y mandamos que a los que tomasen lobicos o mataren algún lobo u oso, se les den ocho ducados de cada camada".







Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Erroetako Administrazio Batzarra
Junta Administrativa de Onraita

Esker onak /Agradecimientos:
Iñaki Cerrajeria
Raúl Leorza Álvarez de Arcaya
Isidro Sáenz de Urturi
Julen Zabaleta